

Kukubiltxo eta Galtzagorriren aitari merezitako saria

Euskal Herriko animazioan aitzindari dugu Juanba Berasategi (Pasai Donibane, 1951). Donostiako Zinemaldiko Zinemira Saria emango diotela baliatuz, errepasoa egin diogu marrazkigile eta zuzendariaren ibilbide oparoari.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

“ARTISTA ZEN ETA ARTISTA NAHI ZUEN IZAN eta artista orok egin beharrekoa egin zuen: Parisen eman zuen denboraldi bat, Beaux Arts-eko eskola nagusian modelo biluziak aspertzeraino marrazten eta Vincennes-ko jangela unibertsitarioetan iraultza egiten. Frantsesera txar baten jabe eta Vasarely-ren teorien morroi etorri zitzaigun. Txatarra pus-kak ebasten hasi ginen Pasaiako moilean, eskulturak moldatzeko. Zinema, orduan, abangoardia egiteko baino ez zitzaigun interesatzen. Super-8 bat zeukan, eta zeluloidea zuzenean maltratatuta zer lor zitekeen erakutsia zigun Sistiagak baino askoz lehenago. Esperimentaziotik marrazki txekiarretara pasa zen, eta egun batean bolantez eta erre-gela milimetratuz beteriko zurezko mahai bat aurkeztu zigun. Abian zen marrazki bizien gure lehen atelierra”. Koldo Izagirre idazleak hala deskribatu zituen (ARGIAN, 1999an) Berasategiren hastapenak.

Atelier hartako lanetik jaio zen animazioan euskaraz egin den lehen film laburra, Berasategi zuzendari: *Ekialdeko Izarra* (1977). Garai hartan ez zen eskolarik, baina “liburuak irakurriz eta pelikulak ikusiz” ikasi zuen pasaitarrak, “bertako proiektore eta paperean kalkatzeko, mugimendu bakoitzak zein soluzio behar zuen aztertzeke”. Marrazki bizidunetako euskarazko lehen film luzearen egilea ere

“Pelikula ikusten dudanean esaten dut, *Kalabaza tripontzia 2* egin beharra daukat egunen batean, egungo teknikekin hobetuta, baina pertsonaiak mantenduz”

bada Berasategi: *Kalabaza tripontzia* (1985). “Hemen, Euskal Herrian, hori ez da posible, nola egingo duzu? Hori Frantzian, Amerikan... Baina hemen?!” esan zioten erakundeetatik, baina bost urtetako lan itzelaren ostean, autobus txartelaren gastua eta egunero bokatiloa beste soldatarik ez zuten 30 lagun ingururen laguntzari esker, kondairetako lami eta sorginak, Xaxpiki, Patxi errementaria edota Kukubiltxo biltzen zituen pelikula estreinatu zen, Donostiako Zinemaldian. Ohorezko aipamena jaso zuen jaialdian eta Espainiako Kultura Ministerioak kalitate bereziko izendatu zuen. Zuzendariaren hitzetan, bi helburu garbi zituen filmak eta biak bete zituzten: Euskal Herriko gaien inguruan egitea eta euskaraz. “Nik ez ditut inoiz garunak urtu pelikulak euskaraz egin behar ote nituen erabakitzeke. Hala sentitu dut, besterik gabe. Filma irudia eta soinua da, eta euskararekin transmititzen dut erosoan”. Gidoi lanetan Koldo Izagirreren eskua ere nabari da emaitzan.

“Sasi guztien azpitik, hodei guztien gainetik”, Akelarretik bueltan esamoldea nahasi zuenetik Kalabazaren satellite izatera kondenatua dagoen gizagaixoak ematen dio hasiera belaunaldi ugariaren gozagarri izan den filmari. Nola gogoratzen duen galdetu nion Berasategiri, *Zeluloidezko begiradak* liburuan: “Orain ikusten dudanean iruditzen zait pelikula zaharra, mugatua, txikia, kristoren ahalegina behar izan zuena. Tresnak oso kaskarrak ziren garai hartan eta mugimendu traketsak dituzte pertsonaia batzuek. Iluna geratu dela iruditzen zait, maiztua bezala, baina aldi berean garai hartarako ezinezkoak diruditen elementuak ikusten dizkiot, multiplanoak eta. Pentsa, gaur egun ez dira egiten, traman-kulu harekin fotogramaz fotograma horrela-



Berasategiren argazkiaren alboan, zuzendu dituen hainbat lanen fotogramak: ezker-eskuin eta goitik behera, *Kalabaza tripontzia*, *Lazkao Txiki*, *Txirrita* eta *Ahmed*, *Alhambra*ko printzea. “Euskal Herrian aurrekontu txikiarekin eta ahalegin handiarekin produktu duinak egiten ditugu. Eta duintasun hori lortzen du pertonez osatutako taldeak, gogoak, ilusioak”.

ko hondoak lortzea travelling-a egiteko... Orainxe ez nintzateke kapaz izango plano horiek gauzatzeko. Astebetez errodatzen aritu beharreko fotogramak daude, eta imajinatu nahastu zarela 3.521. fotograman... Hasi berriro! Gainera ordu eta erdiko pelikula behar zuen izan, besteen berdina, besteen mailakoa. Gaur egun pelikula askok 70 minutu inguru dituzte, haurrek ez dutelako jasaten, baina guk amerikarrek bezala egin behar genuela... Lan titanikoa izan zen, bizitzan berriz errepikatuko ez dena. Estetika aldetik ere badaude gauza politak: Tartalo, Galtzagorri... Badauka zer edo zer. Sasoi hartan, Galtzagorri Eibarren jartzea ez zen edonolako kontua, Bilborekin batera Euskal Herriko hondamendi urbanistikorik handiena zen Eibar, trena kale erdi-erditik igarotzen zen! Eta hantxe paratu genuen Galtzagorri, fabrika artean. Pelikula ikusten dudanean esaten dut, *Kalabaza tripontzia 2* egin beharra daukat egunen batean, zahar itxura hori kendu eta egungo teknikekin hobetuta, baina bestelako aldaketa handiegirik gabe, pertsonaiak mantenduz, gaur egungo egoerara mitologia ekarriz, *katsondeo* gehixeagorekin, konplexuak alboratuta”.

Andaluziarekin elkarlanean, hamarkada bat geroago egin zuen Berasategik *Ahmed*,

*Alhambra*ko printzea (1997). Washington Irving idazlearen Alhambra ipuinetan oinarritua, gehien komertzializatu den pasaitarraren lana da eta izan zuen harrera ona ikusita, bigarren zatia etorri zen ondoren: *Alhambra*ko giltza (2003).

Futbola baino arrakastatsuago

“Ta haundiago bilakatuko zara etorkizunean, zure txikitasunean”. Horrela hasten zen zuzendariak gidaturiko 52 ataleko telesail arrakastatsua, futbolarik baino ikus-entzule gehiago biltzera iritsi zena: *Lazkao Txiki* (1998-1999). Irudi xumeak izanagatik, edukiek erakarri zuten jendea: bertsolariaren pasadizoen bidez, euskal usadio eta baserri giro bete-betea, errealitate historiko, sozial eta politikoaren isla da *Lazkao Txiki*. 13 ataleko *Fernando Ametzketarra* ekoizitakoa zen aitzina (1994-1995) eta beste bertsolari baten bizitza zuzentzeari ekin zion aurrerago: 52 ataleko *Txirrita* (1999-2000). Anekdotaz betetako bizizale baten biografia, umore zorrotzez kontaktua.

Helduei zuzendutako fikzioaren batean eta hainbat dokumentaletan parte hartu du Juanba Berasategik, eta egoerak behartuta, zinemagintzan enpresari izatea ere egokitu zaio. Baina batik bat animazioari lotuta ageri zaigu

ERDIKO KAIERA • JUANBA BERASATEGI

bere izena, marrazkigile, zuzendari. Aizkorriko ikazgileetan girotutako *Barriola, San Adriango azeria* (2008) du azken lana zineman. Telebistan berriz, *Tormesko itsu-mutila* du estreinatzeke. Ondo bidean, Gabonen aurretik emango dute, ETB1en. “Zinema-aretoetan gero eta handiagoa da lehia eta bertigoa ematen du halako proiektuetan sartzekak, diru asko da. Arriskatzekotan, istorio ederragoak kontatuz egin behar duzu”. Istorio ederrak izango ditu kontatzeko, dagoeneko zinemarako hiruzpalau egitasmo baititu buruan.

Bere estiloari muzin egin gabe jarraituko du lanean, egungo animazioa hasi zeneko garaiekin alderatuta asko aldatu dela jakitun: “Esaten dizute ume batek hiru segundo baino gehiago irauten dituen plano bat ez duela jasaten gaur egun, eta gezurra dela uste duzu, baina gero konturatzan zara hurrek publizitate asko kontsumitzen dutela, erritmo biziko iragarkiak, argi eta plano aldaketa pila bat dituztenak, eta gazteak ere biolentzia eta azkartasuna nahasten dituzten planoetara daudela ohituta. Ez dituzte egungo inperatiboak atsegin, telebistaren eta publizitatearen ohiturak direlako horiek, baina azkenean jendeak erritmo hori ‘ikasten’ du, istorioak kontsumitzeko era hori barnerraten du eta gai da telebista-kateak aldatuz hiru pelikula batera jarraitzeko! Kultura hori daukagu”.

Hiru dimentsioen eta anime eta mangaren aroan, teknologiak ez du itsutzen. “Jende asko liluratzen du ordenagailuaren gaitasunak, baina gakoa ez da konputagailuak zer egiten dakien, zuk zer egiten dakizun baino. Makina erabiltzen dakien asko dago, eta teknikari gutxi. Teknologikoki pertsonaia osatu

eta mugiarazten dute eta kito; eta ez, pantailan duzuna aktore bat da, modu jakin batean mugitu, begiratu behar du, izaera, keinu eta hitz egiteko manera propioekin. Pelikulan hori guztia nabaritzen da gero, ea halakoak zaindu dituzten. Pertsonaien gakoak idatzi egiten ditugu oraindik, eta gero hori dena ordenagailu bidez lortzen saiatzen gara. Lehenengo hartu behar da papera eta marraztu, eta marraztu, eta marraztu... ikas-teko, eta gero erabiliko duzu ordenagailua”.

“Pozgarria da sektoreko jendea nitaz gogoratzea. Aldi berean, unerik latzenean dator saria, krisi ekonomikoaren erruz arriskua baitago urteekin pilatzen joan garen esperientzia kreatiboa eta teknikoa galtzeko”

Sari gazi-goza

Kalabaza tripontzia aurkeztu eta 28 urte geroago, Donostiako Zinemaldian saria jasoko du Juanba Berasategik. “Ez naiz sari-zalea –aitortu digu–, lotsa ematen dit, baina lagunengandik dator eta pozgarria da

sektoreko jendea nitaz gogoratzea eta nire ibilbidea aitortzea. Aldi berean, unerik latzenean dator saria, krisi ekonomiko gogor astintzen ari baita eta arriskua dago urteekin pilatzen joan garen esperientzia kreatiboa eta teknikoa galtzeko. Bultzada ekonomikorik gabe ez dago ekoizpenik eta bertako profesionalak kanpora joaten badira, hori galduko dugu, nire kezka da *Kalabaza tripontziaren* garaietara atzera egitea”.

Itxaropen ukituarekin amaitu nahi dugu erreportajea ordea, marrazkigilearen hitzok nabarmenduz: “Euskal Herrian aurrekontu txikiarekin eta ahalegin handiarekin produktu duinak egiten ditugu. Eta duintasun hori lortzen du pertsonen osatutako taldeak, gogoak, ilusioak; hori balore bat da Euskal Herrian, bokazio handiko lana delako hau”. Urte askotako jardunak hala frogatu du, Juanba Berasategiren kasuan. Bejondeiola. ■



inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com